

EUSKAL FONDOA Asoziazioaren kide izan daitezke, asoziazioaren helburuak bere egiten dituzten, Garapenerako Lankidetzara aurrekontuetako partida finko bat zuzendu (aurrekontuen %0,7 ruz erreferentzi bezala) eta Batzarrean erabakitako bazkidetza-kuota ordaintzen duten Euskal Erakunde Lokal guztiak

Asoziazioan sartzeko eskaria, entitate kidegai bakoitzeko organo eskudunak luzatu beharko du. Eskarian, Batzar Orokorrean entitate hori ordezkatu duen pertsonaren izenak agertu beharko du, hala nola Asoziazioaren estatutuak onartzen direnaren adierazpen espresua ere.

Atxekimendu eredua

EUSKAL FONDOA/ASOCIACION DE ENTIDADES LOCALES VASCAS COOPERANTES entitatearen helburuak egitasmo, programa eta ekintzen bidez garapen bidean diren herriekiko lankidetzak laguntzea eta pertsonen eta erakundearen partehartzera bultzatzea dira, instituzioen arteko koordinazioa ahalbidetuz.

Era berean elkarbizitza baketsua, elkartasuna, tolerantzia eta pertsona guztien arteko berdintasuna aktiboki bultzatu nahi ditu, bai gure ingurune hurbilenean, bai geografikoki urrutiago diren herrialdeetan ere.

Hitz batetan, EUSKAL FONDOAren helburu nagusia lankidetzak deszentralizatuan udal eta entitate lokalen paper aktiboa bultzatzea da; baita garapen bidean diren herrialdeetan zein gure artean bake, demokrazia eta elkartasun prozesuak laguntzea eta indartzea ere.

Alde guztietatik komenigarria dirudi gure Udalak Asoziazio honetan parte hartzea eta honen arabera, mozio hau izenpetzen duten Talde Politikoei ondorengo akordioa onartzea proposatzen diote Udal Batzarrari:

_____ko Udala EUSKAL FONDOA/ASOCIACION DE ENTIDADES LOCALES VASCAS COOPERANTESen sartzen da elkartekide oso bezala, haren estatutuetatik sortzen diren eginbeharrak bereganatuz eta Estatutu horiek onartuz, Erabaki honen atal bezala.